



## Maite al nauzu?

1

Mendiko egalean  
leku bakartian,  
famili bat bizi zan,  
lan eta bakean.  
Aite, langille fiña,  
ama be, etxeán,  
seme-mutil ederra,  
eurekin batean,  
Dawn gaitza gaiztoak,  
artuta mendeán.

2

Txikitandik mutilla,  
amak fintasunez,  
zaintzen eban, poz-  
pozik,  
gau eta egunez.  
Baña urteak urte  
aurrera egiñez,  
ama gaxoa, penaz  
aula sentivez,  
etsita gelditu zan  
geiago eziñez.

3

Aitak ori ikusita,  
lana itxi eban,  
ta mutil-seme ona,  
zainduten asi zan.  
Mutillak, maite-egarriz,  
milla ta millatan,  
galdetzen eutson: aita,  
maite nauzu, egitan?  
Ta aitak semeari:  
bai, seme, benetan!

4

Jesus, Juangoiko maite,  
zure EGONLEKURA  
arduratsu natortzu,  
bisita egitera,  
Pekatuan jausi naz,  
zerutik lurrera,  
eta zure errukia,  
nator eskatzena,  
maitatzen ote nauzun,  
egiñez galdera.

5

Entzun dot, adizkide,  
itaun daustazuna,  
eta gaur be damotzut,  
neure barkamena.  
Alan be, entzun nai dot  
zure erantzuna,  
maitatzen ote nauzun,  
egiñaz nik aña:  
mundua salbatzeko  
gurutzatu izana.

6

Milla biderrez, Jauna,  
deustazu agertu,  
maite nauzula, beti,  
tas beti parkatu.  
Nik, barriz, Jesus Ona,  
deutzut guzurtatu,  
"maite zaitut" esanda,  
beingoan ukatu.  
Ez dot gure geiago,  
zu barik gelditu!

Klaudiok

Bil-10-04-09

# olerkia